79. Fortuna Mendi Ibilaldia

ARAUDIA

1. art. Fortuna Kirol Elkarteak ibilaldi honen antolaketarekin duen helburua kultur eta kirol zaletasuna zabaltzea da, izan ere, mendizaletasuna sustatzeaz gain, gure mendietako bazterrak eta bideak ezagutzera eman nahi ditu.

2. art. 79. Mendi Ibilaldi hau 2019ko ekainaren 2an ospatuko da. Irteera IRAÑETAN emango da goizeko 06:30tan eta helmuga LIZARRAN egongo da. Ibilaldi Laburra (24 km; 760 m. desnibela) ZUNBELTZEKO benta zaharrean (ANDIA mendilerroa) hasiko da 08:30etan luzearekin bat eginez.

3. art. Ibilbidea 45 kilometro ingurukoa izango da eta 1.740 metrotako desnibel positiboarekin puntu hauetatik igaroko da: IRAÑETA, IRAÑETAKO PORTUA (San Donato mendilerroa), TREKUA (Goñiko gainak), IKOMAR (Andia Mendilerroa, 1go kontrola), ZUNBELTZ (2. Kontrola), DULANTZ, ITURTZAKO lepoa, (3. Kontrola), LARRAITZA, ETXEBARRIKO HAITZA (Azantza), OLLARRATE, ERAUL (4. kontrola), SAN ESTEBAN ERMITA (Beriain) eta LIZARRA (Los Llanos parkea).

4. art. Parte hartzea bakarka edo, gehienez hiru kidek (adin nagusikoak) osatutako taldetan egingo da Ibilaldia eta kontrol guztietan erakutsi beharko dute Ibilaldiko txartela.

5. art. Ibilaldiaren iraupena 10 ordu eta erdi ingurukoa da eta ibilaldi laburrarena berriz 6 ordu ingurukoa. Ibilbidea burutzen duten parte-hartzaileek diploma jasoko dute helmugan, betiere txartela behar bezala beteta aurkezten badute eta ibilbidea egiteko 7 ordu baino gehiago eta 12 ordu baino gutxiago behar izan badituzte. Ordu horretan helmugako kontrola itxi egingo da. Ibilbide laburrari dagokionez, gutxieneko denbora 5 ordukoa da eta gehienezkoa 9 ordukoa.

6. art. Derrigorrez erretiratzeko gunea: 4. kontrola (37. Km) eta 17:10tan itxiko da. Bertara beranduago iristen diren parte-hartzaile guztiak erretiratzera derrigortuta daude; jarraitu nahi izanez gero, antolakuntzak ez du inolako erantzukizunik edukiko.

7. art. Izena emateko: www.cdfortunake.com webgunean. Prezioak hauek dira: **10€** mendi federatuek eta **12€** ez federatuek. Autobus zerbitzuak: **9€** joan etorria eta **5€** Lizarratik irteerara.

8. art. Autobus zerbitzuak: A) **Joan etorria.** Fortuna KEak autobusak antolatuko ditu Irun eta Donostiatik, Andoain eta Irurtzunetik pasata, Irañetara joateko (Zunbeltzera laburraren kasuan) ezarritako geltokietan. Itzulera Iruñeatik jatorrizko puntuetara autobusak bete ahala. B) **Lizarratik irteerara**. Goizean Lizarratik bi irteeratara zerbitzua jarriko da ere, bertan lo egin edo kotxea utzi nahi duenarentzat. Azken zerbitzu hau emateko kopuru minimo bat beharrezkoa izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero: www.cdfortunake.com / ekitaldiak@cdfortunake.com / Tel. 943214900.

9. art. Ibilaldia mendiko ibilaldi bat dela kontuan hartuta, parte-hartzaileek horrek dakartzan arriskuak kontutan eduki beharko dituzte. Bestalde, Elkarte antolatzaileak ez du inolako erantzukizunik izango parte-hartzaileek izan ditzaketen istripu, galera, kalte edo lesioagatik, edo kontroletik kanpo iristeagatik, ez eta antolakuntzari zuzenean egotzi ezin zaion edozein gertakizunengatik ere.

OHARRAK ETA GOMENDIOAK

1.- Ekipaia. Irteeran ekipaia adierazitako autobusaren maletategian utziko da. Ez utzi beste ezer autobusetan. Ekipaia Lizarrako helmugan jasoko da.

2.- Bidea. Ibilbideak San Donato, Andia eta Urbasako mendilerroak gurutzatzen ditu. Desnibel gogorrena hasieran du eta paisaia ezberdinak; horma bertikalak, pagadiak, belardi zabalak hasieran eta ondoren harizti eta artadiak ugaritzen doazelarik eta bukaeran zereal soroak Lizarraldean.

3.- Ekipoa eta elikagaiak. Mendiko oinetako arinak, telefono mugikorra eta GPSa eramatea gomendatzen dugu, baita eguzkitik babesteko krema, txanoa eta euritakoa edo kapa ere. Kontroletan gehienbat edariak eskainiko dira, ez baitago ia iturririk bukaerako zatirarte. **Larrialdi kasuetan bakarrik erabiltzeko, ekainaren 2an** antolakuntzaren telefonoa 689234367 izango da.

4.- Balizajea. Ibilbide honetan material degradagarriak bakarrik erabiliko dira (oihala edo papera eta banderak) eta guztiak jasoko dira behin Ibilaldia amaitzean. Garrantzi handia duten zenbait bidegurutzetan puntu urdinak margotuko dira bidea errazago adierazteko.

5.- Hondakinak. Ingurunea eta bereziki Andia eta Urbasako Natur Parkea errespetatu behar da, beraz, ontziak eta hondakinak gorde eta helmugan utzi behar dira; edo hobeto, etxera eraman.

6.- Kamiseta. Parte-hartzaile bakoitzari kamiseta bat emango zaio helmugan, Ibilaldiaren oroigarri moduan.